

**NOTA DE PRENSA****ERABAT BIRGAITUTAKO LEHENENGO ERAIKIN EKOEFIZIENTEA  
BILBO ZAHARREAN EGONGO DA ETA ENERGIAREN %40  
AURREZTUKO DU.**

SURBISA Berregokipenerako Hirigintza Elkarteak sozietateak birgaitutako lehenengo eraikin ekoefizientea lortuko du Gorte kaleko 34. zenbakian, Harrobi kalearekiko izkinean. Eraikinak -193 m<sup>2</sup> azalera eraiki dauzka beheko solairuan- Energiaren Euskal Erakundearen Efizientzia Energetikoko Egiaztagia lortu nahi du. Efizientzia energetiko handiagoa lortzeko eraikitze- eta teknika-neurriak modu esperimentalean sartuz "beharrezko ondorioak atera nahi dira, ondoren Bilboko eraikinen parkean ezartzeko. Hala bada, lehenetasunak eta eman beharreko jardueren etapak zehaztu ahal izango dira" baieztatu du Surbisa eta Udal Etxebizitzak elkarteetako presidente Julia Madrazok.

Bilboko Udalerriko etxebizitzetan efizientziarako eta energia aurrezteko proiektuak garrantzia handia dauka Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planaren barruan eguratseko isurketak murriztu eta udalerriko ingurumenaren kalitatea hobetuko baitu eta, ondorioz, herritarrek ongizate altua izango dute euren etxebizitzetan. Proiektua, etxebizitzetan birgaitzean energia aurrezteko neurrien ikerketa praktikoa bultzatzen duen Europako programa batean dago sartuta, DEMOHOUSE programan hain zuzen. Diseinuan jardueren jarraipena, kontrola eta motorizazioa -Labein-Tecnaliak eta Eptisak egingo dituzte- jasotzen dira sistemen funtzionamendua egokia dela bermatzeko.

**Eraikinaren deskripzioa**

Eraikinak, egitura finkatu ondoren, 860 metro koadroko azalera eraikia dauka, eta beheko solairua, lau solairu eta teilatupekoa. Guztira 12 etxebizitza, 39 eta 43 metro erabilgarri bitartekoak. Egun, Harrobi kaletik sartzen da eraikinera. Etxebizitzetako gela guztiek aireztapen eta argiztapen zuzena dute kanpoaldera, komunek izan ezik. Horiek teilaturako aterabidea duten shunts bidez aireztatzen dira.

Lehenengo fase batean eraikinaren egitura egonkortzeko obrak egin dira. Hala bada, egiturak konpondu dira eta teilatu osoa aldatu da; zurezko arkupeen egituraren barnealdea sendotu da; zurezko forjatuen ordeztu, altzairu eta hormigoizko egitura duten beste batzuk jarri dira; zimentazio berriak egin dira; eskailera nukleo berria, igogailurako kutxa, kutxetak, ur eta elektrizitatearen garraiobideak, besteak beste.

### **Proiektua**

Birgaitzeko bigarren fasearen proiektuak etxebizitza guztien goitik beherako birgaitzea jasotzen du, bai eta lehenengo solairuaren jatorrizko bizitegi-erabilera berreskuratu ere. Izan ere, oraintsu arte ostelarietako lokal batzuk egon dira bertan. Halaber, teilatupekoaren bizitegi-erabilera kendu da ez baitu betetzen hirigintzari buruzko egungo araudia.

Birgaitzeko obren kontratazioa lehiaketa-fasean dago -martxoaren 12an itxiko da. Obren aurrekontua 1.335.058 eurokoa da, BEZ barne, eta 14 hilabeteko epea dago horiek egiteko. Beraz, 2008ko maiatzarako amaituta egon behar dira.

Gorte kaleko 34. zenbakiko eraikinean efizientziarako eta energia aurrezteko neurriak ezarriko dira. Ahalik eta efizientzia energetikorik handiena lortzen duten neurriekin eraikiko da -isolamenduaren bidez- bai eta beharrezko eraikuntza-, teknika- eta diseinu-sistemekin ere. Halaber, ahalik eta energia gehien aurrezte aldera, energia berriztagarriak aprobetxatuko dira, eta energiaren erabilera optimizatzeko teknika-, eraikuntza- eta diseinu-baliabide egokiak erabiliko dira. Energiaren %40ko aurrezki espero da.

### **Efizientziarako eta energia aurrezteko sistemak**

Gorte kaleko 34. zenbakiko eraikinaren proiektuak eraikinaren efizientzia energetikoa hobetzeko neurriak jasotzen ditu. Gainera, elektrizitate, ur eta gasaren kontsumoa murriztu nahi du. Horretarako, eguzki-energiaren erabilerarekin bat, eraikinak honakoak izango ditu:

- **Isolamendu termiko eta akustikoa**, eraikuntzako kode teknikoan eskatutakoa baino altuagoa. Berokuntzarako ura berotzeko behar den gasaren kontsumoa murrizteko funtsezko neurria da hori. Harri-zuntzaren erabilera efikazia energetiko eta iraunkortasunerako beste neurri bat da isolamendu mota hori ekoizteko energia gutxiago behar baita. Beraz, gehiago erabilitako beste isolamendu-mota batzuen aldean -poliuretanoak edo poliestirenoak- gutxiago kutsatzen du ingurumena. Harri-zuntza isolatzaile akustiko bikaina da eta erregaitza da. Beraz, suterik egonez gero, segurtasuna handitu egiten du.

- **Beira isolatzaileak.** Etxebizitzetako kanpoko arotzerian emisibitate baxuko beirak jartzea jasotzen da bai barruko beroa ez sartzeko, bai, bero dagoenean, beroa ez sartzeko. Beroa galtzeko eta berokuntzaren kontsumoa murrizteko funtsezko beste neurri bat da.

- **Isolamendu termikodun pertsiana-kutxa.** Etxebizitzako leiho guztietan jartzea jasota dago berokuntzaren kontsumoa murrizteko.

- **Sistema zentrala berokuntzarako eta ur sanitariorako, eguzki atzitzaileren bidez, eta gas naturaleko galdara.** Erakinerako sistema zentralizatu bakarra efizientziarako eta energia aurrezteko oinarrizko neurria da. Hari esker, gas naturalaren kontsumoa murrizten da eta galdarak sortutako CO<sub>2</sub>ren produkzioa gutxitzen da. Sistema zentralizatua instalatuz gero, gas hornitzailearen tarifa hobeak lortu daitezke, horrek dakarren aurrezkiarekin.

- **Kondentsazio-galdara** bat ere jarriko da. Galdara hori diseinatuta dago errekontza-gasetan dauden ur-lurrun gehienak etengabe kondentsatzeko. Errekuntza-gasen beroa berreskuratuz eta berriro erabiltzen da fluido kaloportadorea berotzeko.

Beste neurri bat ohiko erradiadoreen ordez **zoru bero-emailea** jartzea da. Sistema horretan ura 40 gradu inguruko tenperaturan zirkulatzen da, hau da erradiadoreetakoa baino tenperatura baxuagoan. Beraz, energiaren aurrezki handiagoa da eta dispersioagatiko galerak, gutxiago.

Ur beroa ekoizteko eta berokuntzako sistema zentralizatua egokia da **eguzki-atzitzailen instalazio bat** jartzeko. Horrek, eguzki-instalazioa amortizatu ondoren, gas-fakturaren kostua gutxitzen laguntzen du. Ur sanitario beroa hornitzeko hodi guztiak errez birzikla daitezkeen materialez eginda daude.

- **Energia elektrikoa ekoizteko sistema eguzki-atzitzailen fotoboltaikoen bidez.** Proiektuak atzitze-sistema bat jasotzen du. Sistema horrek eraikineko teilatuan eguzki-panel fotoboltaikoak izango ditu, bai eta eguzki-energia energia elektriko bihurtzeko instalazioa ere. Azkenik, energia elektrikoa sarera bidaltzen du.

- **Deskarga bikoitzeko zisternak komunontzietan instalatzea eta txorrot termostatikoak dutxetan.** Bi neurriek zuzenean eragiten dute uraren kontsumoaren arrazionalizazioan.

- Guztiek erabiltzeko diren lekuetan **presentzia antzemateko eta tenporizazioko kontrol-sistema** duen argiztapen-instalazioa, eta **kontsumo baxuko lanparak.**

- **Etxebizitzen barruko temperaturaren kontrola kronotermostatoen bidez.** Programatu daitezkeen kronotermostatoak jarriko dira etxebizitza guztietan. Hala bada, barruko temperaturak bertan bizi direnen erabilera-orduetara egokituko dira. .

- **Etxebizitzako pertsianen kontrola eta motorizazioa.** Pertsianak igo eta jaisteko kontrol domotikoa duen sistema bat diseinatu da, neguan eguzkiak sortzen dituen irabazi termikoak handitzeko eta udan, horiek sahiesteko (ez da energia elektrikorik kontsumituko etxebizitzak hozteko).

- **PVCzko hodi eta tutuen ordeztu gutxiago kutsatzen duten beste material batzuetakoak erabiltzea.** Eraikinaren barruko instalazioetan polipropilenoa, polibutilenoa eta polietilenoa bezalako materialak erabiliko dira, horiek ekoizteko energia gutxiago behar delako, ekoizteko prozesuak gutxiago kutsatzen duelako eta errezagoak direlako birziklatzen.

Bilbao, 2007ko otsailaren 19a

UDALA • AYUNTAMIENTO

Prentsa Kabinetea - Gabinete de Prensa SURBISA

Tfn: 94 420 43 67 / Faxe: 94 420 45 44 H. elek: iu-eb@ayto.bilbao.net